

BIZKAIAN EUSKEREJA JAGON ETA INDARZEKO DEIA

Agiri au izenpetzen dogunok, Bizkaiko euskal erakunde batzuetakoak, alkarregaz euskerearen egoera aztertu ta gero, gauzarik beinenetan gatoz, eta orregaitik.

1.—AUXE ADIERAZOTEN DOGU:

1.1.—Benetan artaga eta larri gagoz, euskereak gure artean, Bizkaiko errietan, agertzen dauan egoera ikustean: erri-errian eta etxe barruan, geroago ta makalago; erdal pentsakeren eta izkuntzen menpean; nagusien eta umetxu-gaztetxuen artean ikaragarriko eten bat sortzeko arrisku bizian; erdal giro indartsu baten murgilduta eta erdi itota...

1.2.—Ainbat aldetan ikusten doguzan alegin andiakaitik itxaropentsu bere ba gagoz: euskereak "izen ona" lortu dau gaurko gizartean eta euskaldun askoren gogo-biotzetan; euskera ikasleak —adin guztietakoak— ugaritu egin dira; ikastola, ikastaro, ikasturte, gau eskola, euskaltegi, era bateko eta beste-ko ainbat erakundek lan gogor eta txalogarria daroe aurrera...

1.3.—Gu guztiok bat gatoz oinarriko eretxi onetan: euskereak Bizkaian iraungo badau, bertoko euskalki berezia jagon, sendotu, zabaldu, aberastu eta gaurkotzea bearrezkoa da. Gure errietan bertako berbetea alboratu eta gitxitzat eukitea, mesedegarri barik guztiz kaltegarri dana ziur gagoz, eta ez Bizkaiko euskalkiarentzat bakarrik, euskerearentzat berarentzat eta gizarteko artuemonetarako ere bai. Bizkaitarrok —eta baita gure euskalkia darabilen Gipuzkoa eta Arabako erriak ere— bizkaiera ezagutu, geuregandu, eta errez eta zuzen berba egiten eta idazten jakin bear dogu, leenengo ta bein. Au lortzen badogu, euskereak bizi-bizirik iraungo dau gure artean, eta batasunerako biderik geiena eginda dago. Baina au galtzen badogu, ziur be ziur gagoz, azal-azaleko itxura dotore batzuk iraun arren, euskerearenak egin dauala Bizkaian (eta ez daigun aaztu, euskaldunetarik % 40ren batek bizkaieraz berba egiten dogula gauri).

1.4.—Ainbat erritar minduta agertu jakuz, gure erakunde batzuetan —ofiziale-letan ere bai— euren buruak, bizkaiera erabiltearren, baztertuta ikusten ditue-lako, bizkaiera euskera ez balitz lege-zen. Onen aurrean, geu ere mindu egiten gara.

2.—AU OLA DALA, DEI LARRI BAT EGINEZ, AUXE ESKATZEN DOGU:

2.1.—AOZKO BERBETEA jagoteko eta indatzeko bide egokiak billatzen eta zabaltzen alegindu gaitezela guztiok.


2.2.—Norberaren etxe, auzo ta erriko euskera bizirik ALFA BETATU daiguzala ume, gazte eta nagusiak: al bait ari-nen, aal danik eta nekerik txikienaz, bear-bearrezko ez diran eragozpenak baztertuz, mailaka-mailaka euskera zabalago baterako ateak edegiz...

2.3.—IKASTETXE GUZTIETAN bertoko euskera berezi eta nortasun andi-ko au irakatsi daitela, ikasleak gure euskalkia zuzen eta txairo erabilteko —bai berbaz eta bai idatziz— gai izan arte. Bien bitartean, beste sistemaren bat jarten astea kaltegarri izango litza-teke.


2.4.—Ori lortutakoan, ontzat emoten dogu beste euskalki eta erak ezagu-tu eta ikastea: auxe izan da, ain zuzen, aspalditik bizkaitar askoren jokabidea.

2.5.—Gure aldizkari, irrati, TV, eta gizarte-artuemonetarako beste tresna guztiak bere aintzat artu daiela emen eskatzen doguna.


Bilbon, 1981, Abenduaren 21ean.




Joseba ATXA
Bilbo Elizbarrutiaren Ikastolen
Arduraduna




Jesús EGUZKIZA
Bilbo Herri Irratian
Euskal Sailekoa




José Antonio RETOLAZA
Ume eta Gaztetxo Euskaldunen
Alfabetatze-Ekintzaren Zuzendari




Karmelo ETXENAGUSIA
Irakaslea




Ander MANTEROLA
Derioko Udako Euskal Ikastaroaren
Zuzendaria




Fermín IRAOLAGOITIA
Ikastola Katolikoan
Alkartearen Lendakaria




Jabier URIARTE
Hizkuntza Eskola Ofizialeko
Euskal Sailaren Arduraduna




Agustín ZUBIKARAI
Idazlea



Martín OLAZAR
"ZER" Aldizkariaren Zuzendari



Lino AKESOLO
Euskerazaintzako Zuzendari



Inaki ZUBIRI
Euskerazaleak-eko Lendakari